



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko ekainaren 5a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (36. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Barzorde Iraunkorak, 2019ko apirilaren 8an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. Barañaingo Udala (4. or.).</p> <p>III. Helburuak eta norainokoa (6. or.).</p> <p>IV. Iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren 2017ko kontu orokorrari buruzko iritzi finantzarioa (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Udalak eta haren erakunde autonomoek legedia betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3. Barañain Auditorioa Fundazioak legedia betetzeari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p>V. Egoera-orri finantziario bateratuak (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua (9. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">V.2. 2017ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta bateratua (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2017ko abenduaren 31n (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Egoera-balantze bateratua, 2017ko abenduaren 31koa (10. or.).</p> <p>VI. Konklusioak eta gomendioak (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. Barañaingo Udalaren Aurrekontu Orokorra (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. Udalaren egoera ekonomiko-finantzario bateratua 2017-12-31n (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko helburuak betetzea (12. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. Aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipena (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. Udalaren kudeaketa-arlo muntadunak (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.6. Erakunde autonomoetako kudeaketa-arlo muntadunak (24. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.7. Barañain Auditorioa Fundazioa (29. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako oharrak (35. or.)</p> <p>Erantzuna behin-behineko txostenari aurkeztutako oharrei (35. or.)</p> <p style="padding-left: 20px;">1. eranskina. Barañaingo udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2017ko abenduaren 31ri dagokiona.</p> <p style="padding-left: 20px;">2. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioaren urteko kontua, 2017ko abenduaren 31ri dagokiona.</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnararra.es/camara.comptos).</p> |
|---|---|

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bere lege arautzailearekin bat (19/1984 Foru Legea, abenduaren 20koa) eta bere 2018ko jarduketa-programari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu du, honakoek osaturikoa:

- Entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontua, zeinean jasotzen baitira aurrekontu-likidazioaren espedientea, egoera ekonomiko eta ondarekoaren espedientea eta finantzen espedientea, bai eta entitatearen beraren eta haren erakunde autonomoen kontuaren eranskinak ere.

- Kontu Orokorren eranskinak.

Txostenak sei epigrafe dauzka, sarrera hau barne. Bigarrenean alderdi orokorrak deskribatzen ditugu, udalarenak, erakunde autonomoenak eta fundazioarenak. Hirugarrenean lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen ditugu, eta laugarrenean gure iritzia ematen dugu, finantzen eta legeak betetzearen ikuspegitik, Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorri buruz, zeinaren laburpena bosgarren epigrafean jasotzen baita, bai eta fundazioak legedia betetzeari buruz ere.

Seigarrenean konklusio- eta gomendio-multzo bat jasotzen dugu, aztergai harturik udalaren aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko printzipioen betetzea, iraganeko txostenetako gomendioen jarraipena eta udalaren, haren erakunde autonomoen eta fundazioaren kudeaketa-arlo muntadunenak.

Horiez gainera, bi eranskin daude:

- Batak jasotzen du udalak 2017ko ekitaldiko kontu bateratuei buruz eginiko oroitidazkia.
- Besteak biltzen ditu Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak, zeinak, nahiz eta formalki ez izan udalaren kontu orokorraren parte, txosten honi eranskin gisa gehitu baitzaizkio.

Udalari 2017ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloko araudia ere.

Barañain Auditorioa Fundazioari aplikatu beharreko araudia nagusiki osatzen dute Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioak, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea ezartzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legeak eta gainerako foru legedi sektorialak; eta, osagarri modura, foru araurik egon ezean, Estatuko legediak.

Landa-lana 2018ko azaroaren eta 2019ko urtarrilaren artean egin zuen lantalde batek, hiru auditoretza-teknikarik eta auditore batek osatua, Legebiltzarraren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzarekin.


Jarduera honen emaitzak alkateari eta Barañain Auditorioa Fundazioaren lehendakari ohiari jakinarazi zitzaizkien, kasua izanez gero egoki zeritzeten alegazioak aurkez zitzaaten, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikulua ezarri bezala. Ipinitako epean, txostenari oharrak aurkeztu dizkio Barañaingo Udaleko alkateak.

Eskerrak ematen dizkiegu udaleko, haren erakunde autonomoetako eta fundazioko langileei, lan hau egiteko eman duten laguntzarengatik.

II. BARAÑAINGO UDALA

Barañaingo udalaren zuzenbidezko biztanleria 20.124 pertsonakoa zen 2017ko urtarrilaren 1ean, eta haren hedadura, 1,4 kilometro karratukoa.

Udal zerbitzu publikoak emate aldera, udalak bi erakunde autonomo eta fundazio bat sortu ditu. Honako grafikoan erakusten da udalaren eta haren menpeko entitateen osiera:



Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2017ko ekitaldiaren itxieran:

- Administrazio-sektore publikoa:

	Eskubideak aitortuak	Betebeharrak aitortuak	Langileak, 2017/12/31
Udala	12.712.427.	12.347.525.	129.
Musika Eskola	882.389.	884.166.	19.
Lagunak Udal Zerbitzua	1.976.122.	1.811.463.	14.
-Bateratze-doikuntzak	-379.000.	379.000.	
Guztira	15.191.938.	14.664.154.	

- Fundazioa:

	Diru-sarrerek	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Batez besteko langile-kopurua
Barañain Auditorioa Fundazioa	673.838.	687.722.	-13.884.	6.

2017an, Udalak 359.000 euroko ekarpena egin zion Musika Eskolari, 20.000 eurokoa Lagunak Udal Zerbitzuari eta 165.000 eurokoa Barañaingo Auditorioa Fundazioari.

Halaber, udala Iruñerriko Mankomunitatearen partaide da, eta haren bitartez egiten ditu uraren ziklo integralaren zerbitzu-ematea, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua, eskualdeko hiri-garraioa eta ibai-parkearen kudeaketa. Azken bi zerbitzu mankomunatu horiek honako gastu hau ekarri diote udalari:

Zerbitzuak	Aitorturiko betebeharrak
Eskualdeko hiri-garraioa	276.902.
Ibai-parkea	59.069.
Guztira	335.971.

Ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Erakunde Autonomoak	Fundazioa	Mankomunitatea	Zerbitzu-kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x				
Musika Eskola		x			
Hirigintza	x				
Uraren ziklo integrala				x	
Hiri-hondakinak				x	
Hiri-garraioa				x	
Ibai-parkea				x	
Bideak garbitzea	x				x
Parkeak eta lorategiak	x				
Udal kiroldegia	x				x
Atletismo-pistak	x				x
Retegui frontoia		x			
Kirol-jardueren kudeaketa	x	x			x
Liburutegia	x				
Ludoteka	x				x
Etxez etxeko laguntza	x				x
Gizarte-enplegu babestua	x				
Kultur etxea	x				
Barañain Auditorioaren kudeaketa			x		
Hezkuntza	x				
Euskara	x				
Berdintasuna	x				x
Gazteria	x				x
Herritarrentzako Arreta Bulegoa	x				
Errolda	x				
Herritarren parte-hartzea	x				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	x				
Lan-mundura sartzeko Bulegoa	x				x
Immigrazio Zerbitzua	x				x
Telezentroa	x				
Mentor Ikasgela	x				
Diru-bilketa	x				
Diru-bilketa exekutiboa	x				x

III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Fiskalizazio finantzarioaren helburua da gure iritzia adieraztea, zertaz eta ea Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorrak erakusten ote duen, muntadun diren alderdi guztietan, ondareak, aurrekontu-likidazioak eta egoera finantzarioak 2017ko abenduaren 31n zeukaten egoeraren irudi zehatza. Orobat, informazio finantzario publikoari dagokionez aplikatu beharrekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraiturik, irizpen bat adierazten du data horretan bukatutako urtealdiko emaitza ekonomiko eta ondarekoari buruz.

Kontu Orokorraren finantza-auditoriarekin batera, legediaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi muntadun guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Barañain Auditorioa Fundazioaren kasuan, berrikuspen mugatu bat planifikatu eta egin dugu zenbait prozedurari buruz, eta legediaren betetzeari buruzko fiskalizazio bat ere egin dugu, iritzi bat adierazte aldera zertaz eta ea fundazioak 2017ko ekitaldian zehar eginiko jarduera eta eragiketa finantzarioak ba ote diren aplikatu beharreko arauen arabekoak, alderdi muntadun guztietan. Eginiko fiskalizazioan lehenagoko ekitaldi batzuetako zenbait jarduketa aintzat hartu ditugu, kontabilitate-agerpena 2017an izan dutenak.

Barañain Auditorioa Fundazioaren urteko kontuen gaineko auditoretza finantzarioa kanpoko erakunde batek egin da, eta aldeko iritzia eman zuen, salbuespenik gabekoa.

IV. IRITZIA

Barañaingo Udalaren 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorra fiskalizatu dugu, zeinaren kontabilitateko egoera-orriak laburbildurik jasota agertzen baitira txosten honen V. epigrafean.

Barañain Auditorioa Fundazioak egin eta 2017ko ekitaldiari dagozkion jarduera eta eragiketa jakin batzuk ere fiskalizatu ditugu.

Udalaren eta Barañain Auditorioa Fundazioaren erantzukizunak

Kontu-hartzaitzak dauka Kontu Orokorra egitearen erantzukizuna, halako moldean non irudi zehatza erakutsiko baitu udalaren aurrekontu-likidazioaz, ondasunaz, emaitzez eta egoera finantzarioaz, betiere jarraiturik informazio finantzarioaz aplikatu beharrekoa den arau-esparruari. Erantzukizun horrek barne hartzen du iruzur edo errakuntzaren ondoriozko akats materialik gabe Kontu Orokorra egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne-kontrola tankeratu, ezarri eta mantentzea.

Udalaren Osoko Bilkurak 2018ko ekainaren 26an onetsi zuen Kontu Orokorra.

Udalak bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Barañain Auditorioa Fundazioan, Patronatuko Batzordearen erantzukizuna da urteko kontuak onestea; horrez gain, bermatu behar du ezen urteko kontuek erakusten dituzten jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko arauekin, eta halaber ezarri behar ditu helburu horretarako beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorraren fidagarritasunari eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta. Horretarako, aipatu fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontrolako Erakunde Publikoek dituzten oinarritzko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazki, auditoretza finantzarioaren oinarritzko printzipioei buruzko ISSAI-ES 200 delakoak ezartzen dituen eta fiskalizazioaren oinarritzko printzipioei buruzko ISSAI-ES 400

delakoak ezartzen dituen. Printzipio horiek behartzen gaituzte etika-baldintzak bete ditzagun, bai eta fiskalizazioa planifika eta egin dezagun halako moduz non moduzko ziurtasunez ondorioztatu ahalko baitugu kontu orokorrak akats materialik gabekoak direla eta egoera-orri finantzarioek erakusten dituzten jarduerak, eragiketa finantzarioak eta informazioa araudi indardunaren arabekoak direla alderdi muntadun guztietan.

Barañain Auditorioa fundazioaren kasuan, gure erantzukizuna da egin diren eragiketen legezkotasunari buruzko iritzi bat adieraztea, gure fiskalizazioan oinarriturik. Horretarako, aipatu fiskalizazioa egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek dituzten oinarritzko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazki, fiskalizazioaren oinarritzko printzipioei buruzko ISSAI-ES 400 delakoari.

Fiskalizazio batek behartzen du prozedura batzuk aplikatzera, auditoria-ebidentzia bat lortze aldera urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabekoak dira, horren barne dela kontu orokorretako oker materialen arriskuen balorazioa, oker horiek iruzur edo akatsaren ondoriozkoak direnean nahiz legeen urratze muntadunen ondoriozkoak direnean. Arriskuaren balorazio horiek egiterakoan, auditoreak aintzat hartzen du entitateak urteko kontuak egin ahal izateko muntadun den barne-kontrola, inguruabarren arabera egokiak izanen diren auditoria prozedurak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emate aldera. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta Kontu Orokorraren aurkezpenaren ebaluazioa ere, aurkezpen hori bere osotasunean hartuta.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du gure iritzia funtsatzeko.

IV.1. UDALAREN 2017KO KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZI FINANTZARIOA.

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Udalaren eta haren erakunde autonomoen ibilgetu materialeko saldoa, 26.074.042 eurokoa, ez dago oinarrituta inbentario xehakatu eta baloratu batean.

Iritzia

Gure iritziz, salbu eta "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" goiburuko paragrafoan norainokoaz adierazi den mugaren efektuengatik, atxikitako kontu orokorrak muntadun diren alderdi guztietan irudi zehatza adierazten du ondareaz, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioaz eta udalak 2017ko abenduaren 31n zeukan egoera finantzarioaz. Orobat, egokiro agertzen ditu data horretan bukatutako urtealdiko emaitza ekonomiko eta aurrekontuetakoak, jarraiturik informazio finantzario publikoari dagokionez aplikatu beharrekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideei.

IV.2. Udalak eta haren erakunde autonomoek legedia betetzeari buruzko iritzia

Iritzia

Gure iritziz, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa bat dagoz, alderdi muntadun guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

IV.3. Barañain Auditorioa Fundazioak legedia betetzeari buruzko iritzia

Betetzeari buruzko iritzi negatiboaren oinarria

- Kontratazio publikoari buruzko araudia ez da aplikatzen fundazioak eginiko laguntza-kontratuen izapidetzean eta esleipenean, nahiz eta entitate hori baden Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen aplikaziopeko entitate bat.

- Langileen kontratazioan ez dira errespetatu fundazio publikoari aplikatzekoak zaizkien berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak.

- Barne kontrolean ahulezia nabarmenak daude, batez ere diruzaintza-alorrean, fakturazio-prozeduretan, funtzio-bereizketan eta zenbait ekitaldi-kontratutan nahiz areto-alokairuko kontratutan.
- Ez dira bete hornitzaileei ordaintzeko legezko epeak, abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasota agertzen direnak, zeinaren bidez merkataritza-eragiketako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen baitira.

Legedia betetzeari buruzko iritzi negatiboa

"Betetzeari buruzko iritzi negatiboaren oinarria" izeneko paragrafoan adierazitako urraketen garrantzia dela-eta, Barañain Auditorioa Fundazioaren 2017ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotzen diren jarduerak, eragiketa finantzarioak eta informazioa ez datoz bat aplikatzekoa den araudiarekin.

Beste gai batzuei buruzko paragrafoa

- Ohartarazteko modukoa iruditzen zaigu fundazioak 2018ko abuztuan Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoari ikuskapen fiskal bat eskatu ziola, hark 2017ko urteko bere kontuak 2018ko maiatzean onetsi ondoren alegia, eta ikuskapen horrek bukatu gabe dirauela gure txostenaren jaulkitze-datan. Zerga-gorabeheren behin betiko zenbatespenak eragina izan lezake egoera-orri finantzarioetan.
- Ziurgabetasuna dago fundazioaren aurka lehenagoko administrazio-arduradunak lan-arloko jurisdikzioan jarritako auzi baten emaitza dela-eta, eraginak izan bailitzake egoera-orri finantzarioetan.

V. EGOERA-ORRI FINANTZARIO BATERATUAK**V.1. 2017ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orri bateratua
(Udala eta erakunde autonomoak)****Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa**

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	%, aitorturiko guztizkoaren gainean
Langile-gastuak	1.	7.990.700.	10.000	8.000.700	7.568.156	7.409.417	158.739	95	52
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	5.448.800	68.097	5.516.897	5.053.807	4.484.096	569.712	92	34
Finantza-gastuak	3	3.000	0	3.000	0	0	0	0	0
Transferentzia arruntak	4	1.079.000	53.903	1.132.903	1.074.430	920.556	153.875	95	7
Inbertsio errealak	6	460.100	632.740	1.092.840	685.010	159.951	525.059	63	5
Kapital-transferentziak	7	0	0	0	0	0	0		0
Aktibo finantzarioak	8	0	0	0	0	0	0		0
Pasibo finantzarioak	9	282.750	0	282.750	282.750	282.750	0	100	2
Gastuak, guztira		15.264.350	764.740	16.029.090	14.664.154	13.256.769	1.407.385	91	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Betetzearen %	%, aitorturiko guztizkoaren gainean
Zuzeneko zergak	1.	4.282.950	0	4.282.950	4.061.348	3.917.495	143.853	95	27
Zeharkako zergak	2	100.000	0	100.000	111.465	106.820	4.645	111	1
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	3.688.800	0	3.688.800	3.622.062	3.470.296	151.766	98	24
Transferentzia arruntak	4	7.050.600	84.750	7.135.350	7.249.879	7.030.582	219.297	102	48
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	132.000	0	132.000	136.409	133.367	3.042	103	1
Inbertsio errealen besterentzea	6	0	0	0	0	0	0		0
Kapital-transferentziak	7	10.000	0	10.000	10.775	8.620	2.155	108	0
Aktibo finantzarioak	8	0	679.990	679.990	0	0	0	0	0
Pasibo finantzarioak	9	0	0	0	0	0	0		0
Total ingresos		15.264.350	764.740	16.029.090	15.191.938	14.667.180	524.757	95	100

**V.2. 2017KO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA
(Udala eta erakunde autonomoak)**

Aurrekontu-emaizta	2016*	2017
+ Aitortutako eskubideak	15.249.395	15.191.938
- Aitortutako betebeharrak	14.261.812	14.664.154
Aurrekontu-emaizta	987.583	527.784
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	446.455	301.370
Aurrekontu-emaizta doituak	1.434.038	829.154

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2017KO ABENDUAREN 31N

(Udala eta erakunde autonomoak)

Diruzaintza-gerakina	2016*	2017
+ Kobratzeko dauden eskubideak	909.960	614.200
+ Aurrekontua. Diru-sarrerak. Aurtengo ekitaldia	776.354.	524.757
+ Diru-sarreraren aurrekontua. Itxitako ekitaldiak	988.400	933.263
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	23.603	27.650
- Bilketa zaileko eskubideak	-878.396	-871.625
- Diru-sarrera eginak. Behin betiko aplikazioaren zain	0.	155.
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.693.200	1.963.339
+ Gastu-aurrekontua. Aurtengo ekitaldia	1.255.214	1.407.385
+ Gastu-aurrekontua. Itxitako ekitaldiak	23.271	25.507
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	414.775	530.508
- Ordaintzeta eginak, behin betiko aplikaziorako zain	-60	-60
+ Diruzaintzako funts likidoak	8.116.245	9.194.811
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	7.333.006	7.845.672
Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	7.333.006	7.845.672

* Auditatu gabeko ekitaldia

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31KOA.

(Udala eta erakunde autonomoak.)

Deskribapena	2017. urtearen itxierako zenbatekoa	Deskribapena	2017. urtearen itxierako zenbatekoa
A IBILGETUA		A FUNTS BEREKIAK	
1 Ibilgetu materiala	26.074.042	1 Ondarea eta erreserbak	28.911.225
2 Ibilgetu ez-materiala	517.337	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.462.881
3 Erabilera orokorretarako azpiegiturak eta ondasunak	10.760.702	3 Kapitaleko dirulaguntzak	14.902.013
4 Herri-ondasunak	0	B ARRISKUETARAKO ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	
5 Finantza-ibilgetua	0	4 Hornidurak	0
B ZENBAIT EKIT. BANATU BEHARREKO GASTUAK		C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	
6 Kitatu beharreko gastuak	0	4 Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	793.380
C ZIRKULATZAILEA		D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	
7 Izakinak	0	5 Itxitako aurrekontuetako eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	1.963.279
8 Zordunak	1.485.671	6 Aplikatzeko dauden partidak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0
9 Finantza-kontuak	9.195.026		
10 Finantzaketa-egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak. Aplikatzeko.	0		
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0		
Aktiboa, guztira	48.032.778	Pasiboa, guztira	48.032.778

VI. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian analisi bat eginen dugu udalaren egoera ekonomiko-finantzarioaz, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko helburuen betetzeaz eta aurreko ekitaldietan emandako gomendioen jarraipenaz; halaber, epigrafe honen azken ataletan, konklusio nagusiak bildu ditugu udalaren, erakunde autonomoen eta fundazioaren kudeaketa-arlorik garrantzitsue- nez, eta bildu ditugu aipatu enteek gauzatu beharko lituzketen gomendioak, baldin eta hobetze-koak badira haien antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola.

VI.1. BARAÑAINGO UDALAREN AURREKONTU OROKORRA

Udalaren eta haren erakunde autonomoek 2017rako zeukaten hasierako aurrekontu batera- tuak agertzen zituen diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurreikuspenak 15,26 milioi eurokoak ziren.

Gastuei eta diru-sarrerei egindako 0,76 milioi euroko goranzko aurrekontu-aldaketen ondoren –hasierako kredituen ehuneko bost egiten dute–, behin betiko gastu eta diru-sarrera bateratuek 16,03 milioi euro egin zuten.

2017an, gastuek 14,66 milioi euro egin zuten, betetze-maila ehuneko 91koa eta ordaintze- maila ehuneko 90ekoa izanik.

Diru-sarrerei dagokienez, 2017an 15,19 milioi euroko eskubideak aitortu ziren; betetze- eta kobratze-mailak ehuneko 95 eta 97koak izan ziren, hurrenez hurren.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili den eta nola finantzatu den Udalak eta haren erakunde autonomoek 2017an gastatutako 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	Zenbatekoa
Langileak	52.	Tributu bidezko diru-sarrerak	51
Bestelako gastu arruntak	41	Transferentziak	48
Inbertsio errealak	5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	1.
Pasibo eta aktibo finantzari- oak	2		

Jarraian erakusten dugu 2016 eta 2017ko ekitaldietako aurrekontu-likidazio bateratuarekin ze- rikusia duen adierazle-multzo baten konparazioa:

Adierazleak	2016*	2017	Aldearen %, 2017/16
Diru-sarrerak, guztira	15.249.395	15.191.938	-0,4
Gastuak, guztira	14.261.812	14.664.154	3
Diru-sarrera arruntak	15.238.321	15.181.163	0
Funtzionamendu gastuak	13.371.536	13.696.394	2
Kapitaleko diru-sarrerak	11.075	10.775	-3
Kapitaleko gastuak	607.526	685.010	13

* Auditatu gabeko ekitaldia

- 2017ko guztizko diru-sarrerek 57.457 euroko beherakada izan dute; hots, ehuneko 0,4koa, aurreko ekitaldikoekin alderatuta. Haien izaerari erreparatuta, beherakada batez ere diru-sarrera arruntetan gertatu da, 57.158 euro gutxiagokoak izan dira-eta.

- 2017an, gastuek ehuneko hiruko gorakada izan dute aurreko ekitaldikoekin alderatuta, eta horrek 402.342 euro gehiagoko gastua ekarri du, zeinetatik 324.858 euro funtzionamendu- gastuetakoak baitira, eta 77.484 euro, kapital-gastuetakoak.

VI.2. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIO BATERATUA 2017-12-31N

Ondoren, 2017ko ekitaldiari buruzko adierazle ekonomiko-finantzario batzuk ematen ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere:

Adierazleak	2016*	2017	Aldea (%) 17/16
Aurrezki gordina	1.866.988	1.484.769	-20
Finantza-zama	282.953	282.750	0
Aurrezki garbia	1.584.035	1.202.019	-24
Aurrekontu-emaizta doituak	1.434.038	829.154	-42
Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina	7.333.006	7.845.672	7
Finantza-zamaren adierazlea***	% 2	% 2	0
Aurrezki gordinak diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehuneko**	% 12	% 10	-17
Zorpetze-ahalmena (%)	% 10	% 8	-20
Zor bizia	1.076.500	793.750	-26
Zor bizia/diru-sarrera arruntak (%)	% 7	% 5	-29
Zor bizia biztanleko	53	39	-26

* Auditatu gabeko ekitaldia

***Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

Aurreko taulatik, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Diru-sarrera arrunten jaitsiera apalak eta funtzionamendu-gastuen igoerak aurrezki gordinaren ehuneko 20ko jaitsiera ekarri dute. Horregatik, eta finantza-zamaren aldaketa ñimiñoarekin batera, aurrezki garbiak ehuneko 24ko beherakada izan du.

- 2017an jaitsi egin da zorpetze-ahalmena, aurrezki gordinak ehuneko 20ko beherakada izateagatik eta finantza-zama 2016ko ia bera izateagatik. Zor biziak ehuneko 26 egin du behera, eta, aurreko ekitaldian bezala, ez da mailegu berririk kontratatu.

- Nabarmen dira aurrekontu-emaizta doituak izandako 604.884 euroko beherakada, zeinak ehuneko 42 murrizketa egiten baitu, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren gorakada, 512.666 eurokoa, zeinak ehuneko zazpiko gehikuntza egiten baitu.

Azken batean, egoera finantzarioari dagokionez, Udalak funtzionamendu-gastuak estaltzeko behar adinako finantzaketa jasotzen du diru-sarrera arrunten bitartez; horrek aukera ematen dio aurrezki gordin positiboa izateko eta finantza-zama bere gain hartzeko; horren emaitza, aurrezki garbi positiboa da. Hala ere, adierazle horiek eta aurrekontu-emaizta doituak behera egin dute aurreko ekitaldiarekin konparatuta.

Halaber dira azpimarratzekoak zor biziaren maila baxua –800.000 euro–, bai eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 7,8 milioi eurokoa izatea ere.

VI.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-JASANGARRITASUNEN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen ondorioetarako, SEC'10 Kontabilitate Nazionalen irizpideei jarraituta, honako ente hauek hartzen dira tokiko administrazio publikotzat: udala bera eta, bestetik, Musika Eskola eta Lagunak Udal Zerbitzua erakunde autonomoak.

Administrazio publikotzat hartzen diren entitateek honako datu hauek izan dituzte:

- Aurrekontu-egonkortasuneko printzipioak:

- a) 0,96 milioi euroko finantzaketa-ahalmena sortu dute.

Finantzaketa-ahalmena

	Zenbatekoa, 2017
Diru-sarrera ez-finantzarioak	15.191.938
Gastu ez-finantzarioak	14.381.404
Saldo ez-finantzarioa	810.534
SEC dela-eta egindako doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarreraren kobrantzak	150.800
Finantzaketa-ahalmena	961.334

b) 2017ko ekitaldiko gastu konputagarria 9.417 euro txikiagoa da gehieneko gastu-muga baino; beraz, bete egiten da gastu-araua, ez baita gainditzen 2017rako baimendutako alde-tasa, ehuneko 2,1ekoa.

Gastu-araua

	Zenbatekoa, 2017
2016ko gastu konputagarri bateratua	12.088.619
% 2,1eko igoera	12.342.480
Diru-sarreraren igoeraren aurreikuspena	177.671
2017rako aurreikusitako gastu-muga	12.520.151
2017ko gastu konputagarri bateratua	12.510.734
2017ko gastuan izandako desbideratzea	-9.417

- Finantza-jasangarritasunaren printzipioa

a) Zor publikoaren jasangarritasunari dagokionez, zorpetzea diru-sarrera arrunten ehuneko 5,23koa da, ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

b) Udalak ez du kalkulatu ez argitaratu batez besteko ordainketa-epea; hortaz, ezin da ondorioztatu ea bete ote duen indarreko arauak merkataritza-eragiketarako aurreikusitakoa.

VI.4. AURREKO EKITALDIETAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Lehentasunez kotzat jotzen dugu 2015eko ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako fiskalizazio-lanetan emandako gomendio hauek betetzea:

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok egon behar du kasuko barne-kontrolaren pean.*

- *Udal inbentarioa onartzea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko alden eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, ziurtatuko eta erraztuko duena hura etengabe eguneratuta egotea eta ibilgetuarekin bat etortzea kontabilitatean.*

- *Plantilla dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeke.*

- *Balorazio-ponentzia berrikustea, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera.*

- *Hirigintza-planeamendua Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen espezifikazioetara egokitzea.*

- *Lurzoruaren Udal Ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik kudeatzea, bai lur-sailei bai eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak erregistratuz.*

VI.5. UDALAREN KUDEAKETA-ARLO MUNTADUNAK

VI.5.1. Udalaren eta erakunde autonomoen aurrekontua eta aurrekontu-likidazioa

Entitatearen 2017ko ekitaldiko aurrekontua eta exekuzio-oinarriak behin betiko onetsi ziren, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean (aurrerantzean, NAO) 2017ko ekainaren 1ean argitaratu ondoren sartu ziren indarrean.

2017ko ekitaldiko aurrekontuak indarra hartu bitartean, 2016ko ekitaldiko aurrekontua luzatuta egon da, toki-aurrekontuen araubidean ezarritako baldintzak beterik.

Egindako azterketatik, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Aurrekontuaren likidazioaren espedientea ez da onetsi.
- Zerbitzuen kostuari buruzko oroitidazkia ez da ageri.
- Barañain Auditorioa Fundazioaren urteko kontuak ez dira udalaren Kontu Orokorrean jaso.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokor eta bakarra legediak ezartzen duen epearen barruan onestea*
- *Aurrekontu-likidazioaren espedientea martxoaren 1a baino lehenago onestea.*
- *Zerbitzuen kostuari buruzko oroitidazkia Kontu Orokorrean jasotzea.*
- *Fundazioaren urteko kontuak udalaren Kontu Orokorrean eranskin gisa jasotzea.*

VI.5.2. Udalaren eta erakunde autonomoen barne-kontrola

Kontu-hartzaitzak barne-kontrola egin behar du kontrol horrek barne hartzen dituen hiru ikuspegietatik; hots, kontu-hartzaitzako eginkizuna, finantza-kontrolarena eta eraginkortasunaren kontrolarena, hala udalean nola erakunde autonomoetan, halaxe ezartzen baita Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eta aurrekontu-betetzearen oinarrietan.

Barne-kontrolako eginkizunez gain, 6/1990 Foru Legeak Kontu-hartzaitzari emandako zereginak dira aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuena, bai eta kontabilitatea ere.

Kontu-hartzaitzari esleituriko eginkizun publikoak kontu-hartzaileak egiten ditu bi ofizial administrariren laguntzarekin, zeinak diruzaintzarekin konpartitzen baitira, eta, 2017ko uztailaren erdialdetik aurrera, enpresa-zientzietako diplomadun baten laguntzarekin ere. Hartara:

a) Udalean egikaritutako funtzioak dira kontabilitatea, aholkularitza eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa, bai eta kontu-hartze eginkizuna ere. Ez da finantza-kontrolik egiten, ez eta eraginkortasunaren gainekorik.

b) Erakunde autonomoetan ez da kontu-hartze eginkizuna betetzen, eta halaber ez da finantza- eta eraginkortasun-kontrolik egiten, zeina exekuzio-oinarriek aurreikusten baitute.

Kontu-hartzaileak txosten bidezko irizpena ematen du aurrekontu-aldaketei, aurrekontuaren espedientearen berriuspenari eta haren likidazioari buruz.

Bi erakunde autonomoek kontabilitate berriazkoa eta udalarenetik bereizia daukate, eta kontabilitate horretaz arduratzen dira erakundearen beraren langileak.

Gure gomendioak:

- *Barne-kontrola egitea, horrek barne hartzen duen guztia eginez; hau da: udalean finantza- eta eraginkortasun-kontrola egitea, eta kontu-hartze eginkizuna eta finantza- eta eraginkortasun kontrola egitea erakunde autonomoetan.*

- *Baloratzea ea kontu-hartzaitzari esleituriko giza baliabideak aski diren barne-kontrola egiteko, eta, kasua bada, horretarako behar adinako baliabideak ipintzea.*

VI.5.3. Udaleko langile-gastuak

Langile-gastuak 6,18 milioi eurokoak izan ziren 2017an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 50 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94koa izan zen.

2016ko ekitaldiarekin alderatuta, aitortutako betebeharrekin ehuneko bat egin zuten gora, xeheaturik jarraian azaltzen denez:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2016*	Aitortutako betebeharrak, 2017	Aldea	Aldearen %, 2017/2016
Hautetsien lansariak	84.088	72.802	-11.286	-13
Behin-behineko langileen ordainsariak	147.690	178.594	30.904	21
Funtzionarioen ordainsariak	1.364.254	1.443.723	79.469	6
Lan-kontratudun langileen soldadak	2.310.443	2.200.690	-109.753	-5
Errendimendurako pizgarriak	63.348	78.214	14.866	23
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	2.151.836	2.210.011	58.175	3
Langileria-gastuak, guztira	6.121.660	6.184.034	62.374	1

* Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Nabarmena da behin-behineko langileen ordainsarien partidan izandako ehuneko 21eko gastu-gorakada, plantillako bi langilek Hezkuntza arloko koordinatzaile bezala laneko bajaran egondako koordinatzaile titularraren ordezkotzat jasota agertzen da plantillan. Errendimendurako pizgarrietan izandako ehuneko 23ko gorakada tokiko poliziaren aparteko orduengatik izan da.

Bestalde, lan-kontratudun langileen ordainsariekin izandako 109.753 euroko beherakadak, ehuneko bostekoak, jatorri nagusia du brigada-langileen aurre-erretiroetan eta gazteen enplegurako programa gauzatu ez izanean, 2017an ez baitu Nafarroako Gobernuarengandik finantzaketarik lortu.

Barañaingo Udalaren osoko bilkurak 2017ko martxoaren 30ean eman zion hasierako onepena udalaren plantilla organikoari. Behin betikoz onetsitako plantilla 2017ko ekainaren 9ko NAO n argitaratu zen, honako postu hauek zituela:

Plantilla organikoa	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak
Izendapen askea	4	4	-
Funtzionarioak	63	28	35
Lan-kontratudunak	53	48	5
Guztira	120	80	40

2016ko eta 2017ko plantilla organikoetan izandako diferentziak hauek dira:

Plantilla organikoa	2017	2016*	Diferentzia
Izendapen askea	4	4	-
Funtzionarioak	63	61	2
Lan-kontratudunak	53	53	0
Guztira	118	120	2

* Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Honako hau da lanpostu hutsen egoera 2017an:

	ZENBAT	Ehunekoa
Lanpostu hutsak, guztira	40	
Lanpostu hutsen ehunekoa, lanpostu guztien artetik		33
Betetako lanpostu hutsak		
a) Lan-kontratudun langileak	23	
b) Administrazio-kontratudun langileak	10	
Betetako lanpostu hutsak, guztira	33	
Aldi baterako betetako lanpostu hutsen ehunekoa		83
Bete gabeko lanpostu hutsak	7	
Bete gabeko lanpostu hutsen ehunekoa		17

Lanpostu guztien ehuneko 33 hutsik dago; horietatik, ehuneko 83 aldi baterako beteta dago, eta gainerako ehuneko 17ak bete gabe jarraitzen du.

2017an ez zen onetsi lan-eskaintza publikorik.

Egin den azterketatik honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2017ko irailean, honako hau argitaratu zen NAOn: "Barañaingo Udaleko funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2017-2019 urteetarako akordioa". Funtzionario publiko diren langileen enplegu-baldintzei buruzko akordioei dagokienez, aplikatzea da Langileen Estatutuaren 84. artikuluan xedatutakoa, eta kasuko administrazio publikoaren eskumeneko gaietan egin daiteke.

Akordioak konpentsaziorako ordain-kontzeptu batzuk jasotzen ditu, zehazki urtealdirako konpentsazio-poltsa bat eta emandako zerbitzuengatik sari bat, gainditu egiten dutenak Langileen Estatutuan jasotzen dena, eta Udalak ezinezkoa du lege-araubide hori aldatzea edo aplikatzea den araudiak jasotzen dituen ordainsariez bestelakoak diren ordainsariak ituntzea.

- 2018ko urtarrilean argitaratu zen NAOn "Barañaingo Udaleko 2017tik 2019ra bitarteko hitzarmen kolektiboa, langile lan-kontratudunentzako". Hitzarmen horretan ez dira agertzen lan-sari-taula indardunak.

- Plantilla organikoan badaude lanpostuak izendapen bera baina araubide juridiko ezberdinak dituztenak, bai lan-kontratudun finkoak bai funtzionarioak ere badaudenez gero. Aplikatu beharreko hitzarmena ezberdina izateak lan-kontratudunentzat eta funtzionarioentzat, esan nahi du ordainsari-araubidea ezberdina dutela, handiagoa izanik lan-kontratudun finkoen lanpostuetan funtzionarioenetan baino, eta hori lanbide-bereizketa justifikatugabe bat da.

- Aldi baterako lan-kontratuko araubidean kontraturiko 21 langile daude, eta administrazio-araubideko zazpi, batez beste 12 urteko antzinatasuna dutenak eta plantillan egiturazko postuak betetzen ari direnak.

- Nomina-lagin baten berrikuspenean egiaztatu dugu ea administrazio-egoera eta ordainsariak bat ote zetozen plantilla organikoan ezarritakoarekin, eta moduzkoa izan da egindako egiaztapenen emaitza.

Alabaina, tokiko poliziako ordutegien kontrolerako programa informatikoa ez da behar bezala erabiltzen, eta horrek galarazi egiten du egiazki egindako aparteko orduak kontrolatzea.

Gure gomendioak:

- *Berrikus dadila "Barañaingo Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario eta administrazio-kontratudunentzako enplegu-baldintzei buruzko 2017-2019 urteetarako akordioa", eta itunak egokitu daitezela Udalaren eskumenekoak diren gaietara.*

- *Berrikus eta azter daitezela izendapen bera duten lanpostuetarako bi araubide juridiko desberdin egoteak ekartzen dituen ordainsari-diferentziak.*

- *Kasuko lan-eskaintza publikoak onestea eta egiturazko lanpostu hutsetarako deialdiak egi-tea, Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan ezartzen diren berrezarpen-tasen eta en-plegua egonkortzeko tasen ahalbideen arabera.*

- *Jardunbide egokiak ezartzea tokiko poliziako lanaldiaren kontrol eta jarraipenerako.*

VI.5.4. Udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak

2017an udalaren ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 3,91 milioi eurokoak izan ziren. 2017an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 31 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 94koa izan da, eta ehuneko 4 egin zuten gora 2016arekin alderatuta.

Honako hauen lagin bat berrikusi dugu:

- Gastu-partidak

Aurrekontu-partida	2017ko betebeharrak aitortuak
Kale-garbiketako kontratua	675.811
Ikastetxe publikoen garbiketa	452.510
Argiteria publikorako elektrizitatea	221.250
Kirol instalazioetarako beste kontratazio batzuk	182.614
Baragazte: kudeaketa eta jarduerak	130.073
Bestelako kontratazioak, partaidetza-kirola	117.482
Bestelako kontratazioak, etxez etxeko laguntza	106.587

- Esleitutako kontratuak

Kontratua	Prozedura	Zenbat lizitazioak	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Beharpena
Barañaingo kultur ondare immaterialaren ikus-entzunezko artxibategia	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	1	10.044	10.044	-
Helduen eta Hirugarren Adinekoen Kirolaren eta Kirol Eskolen Kudeaketa	Irekia, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	2	130.576	120.232	8
Udal Eraikinetako Alarma-Sistemen Mantentzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	5	2.478	2.478	-
Jaietarako orkestrak, 2017	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	2	11.570	9.650	17
Etxez etxeko laguntzako zerbitzuaren erabiltzaileentzako elikadura-zerbitzua	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	1	24.950	24.900	0,2
Immigrazio-teknikaria	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	1	18.800	17.600	6,3

Gure berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har:

- Berrikusitako aurrekontu-partidetako gastuak justifikatuta daudela, sinaturiko kontratuen arabera.
- Berrikusitako kontratuen lizitazioa eta esleipena, bai eta haien exekuzioa ere, kontratu-legediari jarraituz izapidetu direla.
- Gastuak onetsita daudela, kontu-hartzailetzaren kontrolpean, justifikatuta, egokiro kontabilitzatuta eta, oro har, kontratazio publikoari buruzko araudiak ezarritako 30 eguneko epea baino denbora gutxiagoan ordainduta.

Halere, espediente-kudeaketaren gorabehera hauek aipatu beharrean gaude:

- Oro har, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez izapidetzen diren aldizkako hornidura eta zerbitzuak kudeatzen dituen erosten arduraduna da, zeina halaber baita diruzaintzaren arduradun. Gure ustez, eginkizun horiek ez dira eginkizun-bereizketa egoki baten araberakoak.

- Premiamendu bidezko diru-bilketarako agente exekutiboaren kudeaketa-kontratuak 1989an eta 1992an esleitu ziren. Haien indarraldia amaituta dagoen arren, zerbitzua esleipen-hartzaile berberak ematen segitzen dute.

Gure gomendioak:

- *Eginkizun-bereizketa egokia ezar dadila erosketa-arloaren eta diruzaintza-arloaren artean.*
- *Indarreko kontratu-araudiari jarraikiz, agente exekutiboaren zerbitzuak kontratatzeko espediente berriak izapidetzea.*

VI.5.5. Udalaren inbertsioak

Udalak 2017an egindako inbertsioek 0,62 milioi euro egin zuten. Zenbateko hori ekitaldiko gastu guztien ehuneko bost da. Horren betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 61ekoa izan zen, eta gastua, 2016koa baino ehuneko 70 handiagoa.

Obra- eta hornidura-kontratuen honako esleipen hauen lagin bat berrikusi da:

Kontratua	Prozedura	Zenbat lizitatzaile	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Esleipenaren zenbatekoa (BE-Zik gabe)	Beharpena
Udaletxeko galdara-gela eraberritzea eta gas naturala instalatzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	2	54.686	43.906	20
Foruen Plaza berrurbanizatzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	5	419.835	311.051	26
Lagunak Udal Zerbitzurako kabina sanitarioak eta erretegi-tako banku eta mahaietarako elementu fenolikoak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	4	11.724	10.481	11
Lagunak Udal Zerbitzuko erretegi-tarako banku- eta mahai-eusgailuak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	2	14.995	14.185	5
Calistenia Kirol Parkerako hornidura eta instalazioa	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua		13.000	12.048	7
Kiroldegiko pistarako sarrera-atea aldatzea	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	1	3.687	3.500	5

Oro har, kontratuen lizitazioa eta haien esleipena, bai eta kontratuen exekuzioa ere, kontratuei buruzko legediari jarraituz izapidetu dira, eta gastuak onetsita, kontu-hartzailetzak aztertuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude; eta kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritako 30 egunak baino epe laburragoan ordaindu dira.

VI.5.6. Udalaren transferentzia arruntengatiko gastuak

2017an, udalak 1,35 milioi euro egiten duten transferentziak eta dirulaguntzak eman zituen. Honakoak izan ziren onuradunak:

	Arruntak	
	Aitorturiko betebeharrak	Aldea (%) 2017/2016*
Erakunde autonomoak	379.000	1
Udal fundazioa	165.000	83
Foru Komunitatea	93.327	0
Toki entitateak	276.903	1
Enpresa pribatuak	22.700	7
Familiak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak	392.000	-1
Kanpora	20.000	0
Guztira	1.348.930	6

* Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Transferentziek eta dirulaguntza arruntek 2017an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 11 egiten dute. Haien betetze-maila behin betiko kredituen ehuneko 86koa izan zen.

Transferentzia arruntek aurreko ekitaldiarekin alderatuta izandako ehuneko seiko gorakada gehienbat zor zaio Barañain Auditorioa Fundazioak izan duen 75.000 euroko gehikuntzari; hots, 2016an baino ehuneko 83 gehiago.

2017an ez da Fundazioarentzako kapital-transferentziarik onetsi, aurreko ekitaldian ez bezala, zeinean 6.000 euro bideratu baitzitzaizkion.

Transferentzia eta dirulaguntza arrunten honako lagin hau fiskalizatu dugu:

Izena	2017ko betebeharrak
Musika Eskolarako dirulaguntza	359.000
Eskualdeko garraioa, kuota	276.902
Auditorioaren hitzarmenerako ekarpena	165.000
Gizarte-larrialdiko laguntzak	83.644
Ibai-parkea	59.069
Kirol-eskoletarako dirulaguntza	43.043
Lankidetzeta-hitzarmenatarako dirulaguntza	39.903
Infolocal proiekturako ekarpena	34.258
Udal taldeentzako dirulaguntza	24.234
Euskara ikasteko dirulaguntza	23.010
Enplegu Planerako dirulaguntzak	22.700
Irabazi asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak	22.000

Oro har, emandako eta ordaindutako transferentzia eta dirulaguntza guztiak onetsita, fiskalizatuta eta egoki kontabilizatuta daude, kasuko akordioen edo deialdien arabera.

Aurrekoa gorabehera, egindako fiskalizaziotik honako gai hauek nabarmendu behar ditugu:

- Udalak Barañain Auditorioa Fundazioari eginiko ekarpena oinarrituta dago urtealdiko hitzarmen batean, haren estatutuetan ezartzen denari jarraikiz. Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekitaldiko hitzarmena urte horretako irailean onetsi zuen, 165.000 euroko zenbatekoarekin. Hori onetsi baino lehen, eta konturako ordainketen kontzeptuan, 148.206 euro transferitu ziren.

Hitzarmenak zehazten du Barañaingo Udalak instalazioa erabiltzeko baldintzak zein izanen diren, eta lerro estrategikoak jasotzen dituen eranskin bat ere badauka. Diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehakaturik ez da agertzen.

Udalak fundazioari eginiko ekarpen ekonomikoari dagokionez, bai hitzarmenak bai estatutuek xedatzen dute ezen fundazioari aplikatu beharreko kontrol-mekanismoen artean betiere egonen dela urteroko kontu-ematea eta udalak horiek onestea. Udalak ez ditu onetsi fundazioaren kontuak.

- Udal taldeen diru-zuzkidurak Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 73.3 artikuluan daude araututa. Bertan, honako hau ezartzen da:

"Korporazioko Osoko Bilkurak diru-zuzkidura bat izenda dezake talde politikoentzat korporazioko urteko aurrekontuen kontura; osagai bat finkoa izanen da, talde guztientzat berdina, eta beste osagaia aldakorra, talde bakoitzeko kide-kopuruaren arabera, Estatuko aurrekontu orokorren legeetan orokorrean ezar daitezzen mugen barruan; eta ezin izanen dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduen inolako langileren lansariak ordaintzeko, ez eta ondare moduan aktibo finkoak eratzeko balio dezaketan ondasunak eskuratzeko ere".

Horretarako, artikuluko horrek udal taldeei ondokoa ezartzen die: *"kontabilitate berariazko bat eraman beharko dute, eta hura Korporazioko Osoko Bilkuraren esku jarri beharko dute, horrek eskatzen duen guztietan"*.

Udalari baldintza horien betetzea egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu zaio, eta honako hau da emaitza:

a) Udaleko osoko bilkurak 2015eko uztailean onetsi zuen egungo zazpi udal talde politikoentzako kopuru batzuk esleitzea. Seihtileroko banku-transferentzien bitartez ordaindu dira.

b) Ez da ikusten Osoko Bilkurak udal taldeei eskatu dienik berriazko kontabilitatea aurkez dezaten.

Egindako azterketan oinarriturik, hona gure oharrak:

a) Udal talde politikoentzako diru-esleipenak izaera finalista du, eta haren xede naturala da taldearen funtzionamendua erraztea haren udal jarduera korporatiboan; eta, funts publikoak diren aldetik, justifikatu beharrekoak dira.

b) Abiapuntu hartuta ezen bai zuzkiduraren esleipena bai kontabilitate-errekerimendua hautazkoak direla Osoko Bilkurarentzat, komenigarria izanen litzateke, zenbateko horiek esleitzea erabakita dagoenean, berriazko kontabilitatea eska dezan, haien xedeari dagokionez tokiko esparruan ezartzen diren mugak kontrolatzeko.

c) Osoko Bilkurak hautazko duen berrikuspen hori osatu egin beharko litzateke dirulaguntzak nola aplikatu diren egiaztatzearekin, eta hori Kontu-hartzailetzari dagokio.

- "Lankidetz hitzarmenentarako dirulaguntzak" deritzon partidaren deialdiari dagozkion laguntzez denaz bezainbatean, oinarriek egin behar den jarduera-motaren arabera ezartzen dituzte puntu-esleipenerako irizpideak; halere, dirulaguntzaren zenbatekoa onuradun bakoitzak lorturiko puntuazioaren arabera banatzeko irizpideak edo formula ez dira ezartzen.

Gure gomendioak:

- *Epe barruan fundazioarekin hitzarmen bat egitea, beharizan-aurreikuspenekin eta diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuekin bat, fundazioaren ardurapean ipinitako jardueren eta horien finantzaketaren araubidea ezarriko duena.*

- *Erregelamendu bidez garatzea udal taldeen finantzaketaren justifikaziorako araubidea, bertan zehaztuta bai haien zuzkidura ekonomikoen xedea, bai eta formazko eta prozedurazko gainerako betekizunak ere, funtsak justifikatu eta fiskalizatu ahal daitezzen.*

- *Lankidetz hitzarmenentarako dirulaguntzen oinarri arautzaileek banaketa ekonomikorako irizpide edo formula gisa jaso dezatela onuradunei esleituriko puntuazioa.*

VI.5.7. Tributuak, prezio publikoak eta udalaren bestelako diru-sarrerak

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2017an aitortutako eskubideek 5,6 milioi euro egin zuten. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 44 egiten dute, eta honakoei dagozkie:

Diru-sarreraren kapitulua	DRN 2016*	DRN 2017	Betetzea (%)	Aldearen %, 2017/16
Zuzeneko zergak	4.149.493	4.061.348	95	-2
Zeharkako zergak	228.814	111.465	111	-51
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.409.516	1.403.829	104	-0,4
Guztira	5.787.823	5.576.642	97	-4

* Auditatu gabeko ekitaldia

Zergak

Zergak udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 34 egiten dute, eta honakoei dagozkie:

Izena	DRN 2016*	DRN 2017	Aldea	Aldea (%)
Zuzeneko zergak	4.149.493	4.061.348	-88.145	-2,1
Lurraren kontribuzioa	2.427.592	2.419.206	-8.386	-0,4
Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga	1.059.483	1.075.698	16.214	1,5
Lurren balio-igoeraren gaineko zerga	451.448	359.074	-92.374	-20,5
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	210.970	207.370	-3.599	-1,7
Zeharkako zergak	228.814	111.465	-117.349	-51,2
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	228.814	111.465	-117.349	-51,2

* Fiskalizatu gabeko ekitaldia

Bereziki esanguratsuak dira 2016. urtearekiko honako beherakada hauek: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergak ehuneko 51,2koa izan du, eta hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergak, ehuneko 20,5ekoa.

Udalak aplikatutako zerga-tasak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte ertain-altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,291	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,40	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza	11,55	8-20
5 urte bitarte	3	2,6-3,6
10 urte bitarte	3	2,3-3,5
15 urte bitarte	3	2,1-3,4
20 urte bitarte	3	2,1-3,4
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5

Barañaingo udalerrian, indarreko balorazio-ponentzia 2000. urtekoa da, 2001etik aurrerako efektuekin; beraz, alde handiz gainditu da azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoak, balorazio-ponentzia derrigor eguneratzeko jartzen duen bost urteko epea. Dena den, 2014ko azaroan balorazio partzialeko ponentzia bat onetsi zen, Batzorde Mistoak aurkezturiko proposamen lotesleari jarraikiz, eta 2018ko maiatzean ponentzia-berrikuspenaren hasiera onetsi da, bai eta gero, 2018ko ekainean, Nafarroako Gobernuari horren berri ematea ere.

Lagin bat berrikusi da, zerga ezberdinena eta tributu-kudeaketan aplikatzekoak diren premia-mendu-errekargu eta berandutze-interesena.

Egiaztatu dugu ezen, orokorrean, zergen likidazioa eta haien diru-bilketa ordenantzei eta kasuko arauari jarraikiz egin direla. Dena den, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga aldatu egin da, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko ekaineko epai baten ondorioz, zeinaren bidez konstituzio-kontrakotzat eta deuseztat deklaritzen baitira Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen artikulua batzuk; horren ondorioz, deusezak dira balio-gehikuntzarik sortzen ez den eskualdatzeetan egindako likidazioak.

Arau-aldaketa horrek ekarri du toki-ogasunaren araubidea aldatzea, abenduaren 17ko 19/2017 Foru Legearen bitartez, ezartzen baitu ez dela zergaordaintze-betebeharrik egongo subjektu pasiboak balio-gehikuntzarik eza frogatzen duen kasuetan.

Konstituzio auzitegiaren epaiaren ondorioz, 2017an likidazio ugari eten egin ziren. Zehazki, balio-gehikuntzarik gabekotzat jotzen zirenak. Likidakizun gelditu ziren 2017ko uztailetik abendura bitarteko epeko eragiketak. Lege berrian araututa egon arren, eten egin ziren, zuhurtasunagatik eta emankizun zeuden ebazpen judizialei buruzko ziurgabetasunagatik.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk

Udalaren tasek, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak 1,4 milioi egin dute 2017an, eta udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 11 egiten dute. Honako hauei dagozkie:

Kontzeptua	DRN 2017	%, guztizko diru-sarreraren gainekoa	Aldea (%) 2017/16
Tasak	556.991	4,5	-2
Prezio publikoak	562.881	4,5	-1
Bestelako diru-sarrerak	283.957	2	4
Guztira	1.403.829	11	-0,4

Prezio publikoen hurrengo partiden lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Haur Eskolako kuotak	165.629
Haur Eskolako jantokiko kuotak	79.999
Gazte eta helduen kiroleko kuotak	119.152
Kirol instalazioetako kuotak	71.240

Egiaztatu ahal izan dugunez, berrikusitako prezio publikoen likidazioa eta diru-bilketak, oro har, araudiari jarraikiz egiten dira.

Honako gorabehera hauek ikusi dira:

- Kirol instalazioetarako kuoten partidan sarturik daude udal kiroldegiko muskulazio-aretoa, sauna eta squash erabiltzeagatik kuotak. Kiroldegi horren kudeaketa 20 urteko eperako esleitu zen 2004an.

Kontratua ez da pleguetan ezarritakoaren arabera kudeatzen; izan ere, haietan ezartzen da esleipen-hartzaileak kontu bat irekiko duela, zeinean sartuko baititu erabiltzaileek ordainduriko kopuruak, eta abonamendu-eskaerak eta -bajak izapidetuko dituela. Halaber ezartzen da kontratuaren prezioa Udaleko gastu-aurrekontuari egotziko zaiola.

Alabaina, esleipen-hartzaileak udalari kuoten likidazio garbia ordaintzen dio kudeaketa-portzentajea deskontatu ondoren, zeinak kontratuaren prezioa osatzen baitu. Eskabide, baja eta abonamenduen izapidetzea udalak egiten du.

Gure gomendioak:

- *Udal kiroldegiko muskulazio-aretoaren, saunen eta squasharen kudeaketarako kontratua kudeatzea kasuko pleguetan ezarritakoari jarraikiz.*

- *Kontratuaren prezioari dagokion gastua eta erabiltzaile-kuotengatik guztizko diru-sarrerak kontabilizatzea bi kontzeptu horiek konpentsatu gabe.*

VI.5.8. Udalaren ondarezko diru-sarrerak

2010ean sortutako ondarezko diru-sarrerak 0,12 milioi eurokoak izan ziren, eta honako kontzeptu hauei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak	%, guztizkoaren gainean ehunekoa	Aldea (%) 2017/16
Gordailuen interesak	19.686	0,2	-51
Lokalen alokairua	7.828	-0,1	15
Emakida administratiboak	92.340	0,7	3
Guztira	119.854	1	-13

Ondarezko diru-sarrerek udalaren guztizko diru-sarreraren ehuneko bata egiten dute, eta behin betiko aurreikuspenen ehuneko 104an exekutatu dira.

Emakida administratiboan lagin bat berrikusi da, eta egiaztapenen emaitza egokia izan da.

VI.5.9. Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerek

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerek 2017an zazpi milioi euro eta 10.775 euro egin zuten hurrenez hurren, eta udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 55 egiten zuten guztira.

Aurreko urtearekiko datu-konparazioak honako alde hauek erakusten ditu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2017/2016
	2016*	2017	
Transferentzia arruntak	6.923.955	7.005.155	1
Kapital-transferentziak	11.075	10.775	-3

* Fiskalizatu gabeko ekitaldia

2017an jasotako transferentzia arrunt nagusiak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	Zenbatekoa, 2017	Transferentzien bitarteko diru- sarreraren guztiz- koaren gaineko ehunekoa	Aurrekontuzko diru-sarreraren guztizkoaren %
Nafarroako Zerga Ogasuneko zergetako parte-hartzea	5.692.907	81	45
Montepioaren finantzaketa	406.749	6	3
Nafarroako Gobernua: oinarritzko gizarte zerbitzua	359.374	5	3
Haur eskolak	227.522	3	2

Transferentzia arrunten kapituluari, udalaren eta Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontu-informazioaren arteko koherentzia berrikusteaz gain, diru-sarreraren partiden honako lagin hau berrikusi da:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Haur eskolak	227.522
Euskararen inguruko jarduerak	18.849
Gizarte-enplegu babestua	100.479
N.G.ren d., zerga-salbuespen eta -hobariak	16.375
Gazteriaren arloko jarduerak	11.109

Egindako lanarekin, egiaztatu dugu ezen, oro har, transferentziengatiko diru-sarrera horiek aplikatzekoa den araudiari jarraikiz izapidetu eta kudeatu direla.

VI.5.10. Udalaren ingurune teknologikoa

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakundek aurrera daraman kudeaketan. Daukaten garrantzia dela eta, Barañaingo Udalaren Kontu Orokorrari buruzko txostenean lehenengo aldiz konklusio batzuk jaso ditugu "ingurune teknologikoari" edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemari buruz eta Udalaren informazio-teknologiaren gaineko kontrol orokorreari buruz.

Informazio-sistemen kudeaketaz zuzenean arduratzen da Informatika Zerbitzua, Modernizazio eta Herritarren Arretarako Alorraren barrenean, zeinak gaur egun informatika-teknikari bat eta informatika-sistemetakofizial bat baitaizka.

Azterketa hori egiteko, galdetegi orokor bat bidali eta dokumentazioa eskatu genuen; horrek aukera emanen zigun ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeko.

Konklusioak honako hauek dira:

- Sistemen funtzionamendua egokia da, eta nabarmengarriak dira zenbait alderdi, hala nola informazio-teknologiako eragiketak, antibirusak, sare eta komunikazioen segurtasuna, babesko-
piak eta hondamendietarako berreskuratze-plan bat egotea.

- Ez dago informazio-sistemen plan estrategikorik. Horren ordez, ekimenak informatikarien-
gandik sortzen dira, udaleko inguruneaz eta horren premiez dakitena oinarri hartuta.

- Nahiz eta ez daukaten segurtasun-eskema nazionalei egokitzeko planik, horien gauzatzea
aurrekontuetan jaso eta planifikatu dute, Animsa sozietate publikoak segurtasun-politikak direla-
eta udalekin eginen duen programazioari jarraikiz.

- Aplikazioetan ez dago aldaketen kudeaketarako prozedurarik. Aplikazioak zuzenean pasa-
tzen dira ekoizpenera, erabiltzaileek edo egoki diren arduradunek balidatuak izateko proba-
ingurune batetik pasatu gabe.

- Ez dago zerbitzu-mailari buruzko akordiorik, ez eta haien jarraipenerako adierazlerik ere,
aplikazio eta sistema nagusietan.

- Ez dago prozedura estandar ezarrikerik erabiltzaile-kudeaketarako, dela tokiko sarerako, dela
aplikazioetarako. Erabiltzaile-kudeaketako eginkizun batzuk egin egiten dira, baina ez daude do-
kumentatuta.

Gure gomendioak:

Informazio-sistemen plan estrategiko bat onestea.

Prozedura estandarretatik aldentzen diren erabiltzaile-kudeaketako eginkizunak dokumentatzea.

*Datuak Prozesatzeko Zentroko segurtasun-kudeaketako eta baimentzeko prozedura ezar-
tzea, haren eraginkortasuna bermatuko duena hala sarbideari dagokionez nola ingurumen-
baldintzei dagokienez.*

VI.6. ERAKUNDE AUTONOMOETAKO KUDEAKETA-ARLO MUNTADUNAK

VI.6.1. Musika Eskola

2017ko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea honelakoa da, sailkapen
ekonomikoaren arabera:

Gastu-aurrekontuaren betetzea

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketak	Ordainkizun dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztizkoaren gainean (%)
Langile-gastuak	1	792.900	10.000	802.900	786.991	771.746	15.245	98	89
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	131.600	-10.000	121.600	92.380	83.559	8.821	76	10
Inbertsio errealak	6	0	7.000	7.000	4.795	802	3.993	68	1
Gastuak, guztira		924.500	7.000	931.500	884.166	856.107	28.059	95	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea.

Kontzeptua	Kapi- tulua	Hasierako aurreikus- pena	Aldaketak	Behin betiko aurreikus- pena	Aitortutako eskubideak	Kobran- tzak	Kobrak- izun dago- ena	Betetzearen %	Aitortutako guztizkoar- en gai- nean (%)
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	408.500	0	408.500	361.610	357.367	4.243	88	41
Transferentzia arruntak	4	516.000	0	516.000	520.779	329.099	191.680	101	59
Aktibo finantzarioak	8	0	7.000	7.000	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		924.500	7.000	931.500	882.389	686.466	195.923	95	100

Langileak

2017an Musika Eskolako langile-gastuak 0,79 milioi eurokoak izan ziren.

Plantilla organikoak honako 19 lanpostu hauek jasotzen ditu:

	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak	Bete diren lanpostu hutsak
Hautapen askea	0	0	0	0
Funtzionarioak	0	0	0	0
Lan-kontratudunak	19	15	4	4
Guztira	19	15	4	4

Egin den azterketatik honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Erakunde autonomoko langile guztien araubide juridikoa lan-kontratudun langile finkoena da. Lanpostu bat ofizial administrariarena da, eta gainerakoak, musika-irakasleenak.
- Lau lanpostu hutsak aldi baterako lan-kontratudunen araubidean kontraturiko langileek betetzen dituzte, batez besteko antzintasuna 12 urtekoa dutenak; eta plantillan egiturazkoak diren lanpostuak ari dira betetzen.
- Erakunde autonomoak 2013-2016 aldirako enpresa-itun bat dauka onetsita, 2017an indarrean dirauena. Horretan aurreikusirik ez daudenetarako, igorpena egiten dute Nafarroako Gobernuaren 2007ko urtarrilaren 15eko erabakira, zeinaren bidez onesten baita Foru Komunitateko Administrazioak sinaturiko Lan-kontratudun Langileen Hitzarmen Kolektiboa.
- Nominen kudeaketa kanpoko kontabilitate-aholkulari baten bitartez egiten da.

Nomina-lagin baten berrikuspenaren emaitza onargarria izan da, honako salbuespen hauekin:

- Gizarte-segurantzarako kotizazioa oker egin da, legez aplikatzekoak direnak baino kotizazio-oinarri altuagoen arabera.

Maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege-dekretuak, zeinaren bidez aparteko neurriak hartu baitziren defizit publikoa murrizteko, besteak beste ekarri zuen langile publikoen soldaten murrizketa. Halere, soldata-murrizketa hori gorabehera, langileen kotizazio-oinarri eutsi zitzairen, etorkizuneko prestazioei kalterik ez egitearren. Aipatu xedapenak eta ondoz ondoko Estatuko aurrekontu orokorren lege urtekariak ezarri zuten ezen oinarri horien 2010eko abenduko zenbatekoa konstante mantendu behar zela kotizazio-xedeetarako, salbu eta kasuko ordainsarien arabera zenbateko handiagoko beste bat zenean aplikatzekoa, zeren, orduan, oinarri horren arabera eginen baita hilabeteroko kotizazioa.

Xedapen horiek ez dira ondo aplikatu erakunde autonomo honetan, eta horren ondorioz, Gizarte Segurantzari eginiko kotizazioak handiagoak izan dira legez aplikatzekoak izanen zirenak baino.

Egoera hori ez da gertatu giza baliabideen arloak zuzenean kudeatzen duen udal-langileriaren nominetan.

Gure gomendioak:

- *Kasuko lan-eskaintza publikoak onestea eta lanpostu hutsetarako deialdiak egitea Estatuko aurrekontuei buruzko lege orokorretan ezartzen diren berrezarpen-tasen eta enplegu-egonkortze-tasen ahalbideen arabera.*
- *Kotizazio-oinarriak zuzentzea eta Gizarte Segurantzarekiko egoera erregularizatzea.*

Kontratazioa

Ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastu arruntek 92.380 euro egiten dute.

Honako kontratu hauek berrikusi ditugu:

Kontratua	Zenbatekoa (BEZa barne)
Atezain- eta garbiketa-zerbitzuak	30.816
Lan-aholkularitzako zerbitzuak	5.100

Eginiko berrikuspenean egiaztatu dugu 2002ko kontratuak direla, haien indarraldia bukatu ondoren ematen segitzen diren zerbitzuetarakoak; horrela, ba, berriro lizitatu beharko ziren.

Gure gomendioak:

- *Kontratuei buruzko araudian kontratuetarako ezarritako gehieneko indarraldi-epea errespetatzea, eta kontratuen plangintza egokia ezartzea, egungo araudiak aurreikusten ez dituen luzapenak ekiditeko.*

Diru-sarrerak

Tasa eta prezio publikoen ondoriozko diru-sarrerak eta 2017an sortutako beste diru-sarrera batzuk 0,36 milioi eurokoak izan ziren.

Prezio publikoen honako partida honen lagin bat berrikusi dugu:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Matrikula ofizialak	351.285

Egiaztatu ahal izan dugunez, matrikulen likidazioa eta diru-bilketa, oro har, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz egiten dira.

VI.6.2. Lagunak Udal Zerbitzua

2017ko ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea honakoa da, sailkapen ekonomikoaren arabera:

Gastu-aurrekontuaren betetzea

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitorturiko betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako gutzitzkoaren gainean (%)
Langile-gastuak	1	652.200	0	652.200	597.131	596.050	1.081	92	33
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	1.235.300	0	1.235.300	1.053.912	980.243	73.669	85	58
Transferentzia arruntak	4	104.500	0	104.500	104.500	89.500	15.000	100	6
Inbertsio errealak	6	15.000	49.750	64.750	55.920	10.584	45.336	86	3
Gastuak, guztira		2.007.000	49.750	2.056.750	1.811.463	1.676.377	135.086	88	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea.

Kontzeptua	Kapitulua	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobraki-zun dagoena	Betetzearen %	Aitortutako gutzitzkoaren gainean (%)
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	1.929.500	0	1.929.500	1.856.622	1.850.486	6.136	96	94
Transferentzia arruntak	4	60.500	24.750	85.250	102.945	82.909	20.036	121	5
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	17.000	0	17.000	16.554	13.512	3.042	97	1
Aktibo finantzarioak	8	0	25.000	25.000	0	0	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		2.007.000	49.750	2.056.750	1.976.122	1.946.908	29.214	96	100

Langileak

2017an Lagunak Udal Zerbitzuko langile-gastuak 0,6 milioi eurokoak izan ziren.

Plantilla organikoak 15 lanpostu jasotzen ditu, honela:

	Lanpostuak	Jardunean	Lanpostu hutsak	Bete diren lanpostu hutsak
Hautapen askea	0	0	0	0
Funtzionarioak	0	0	0	0
Lan-kontratudunak	15	10	5	5
Guztira	15	10	5	5

Egin den azterketatik honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Erakunde autonomoko langile guztien araubide juridikoa lan-kontratudun langile finkoena da.
- Hutsik dauden lanpostuetako lau beteta daude aldi baterako lan-kontratudunen araubidean kontraturiko langileekin, batez besteko antzintasuna sei urtekoa dutenak; eta plantillan egiturazkoak diren lanpostuak ari dira betetzen.
- Lan-kontratudun langileei aplikatzekoa zaie Barañaingo Lagunak udal zerbitzuko 2014-2016 aldirako enpresa-hitzarmen kolektiboa, zeina 2017ko ekitaldirako luzatua izan baitzen. Hitzarmenean aurreikusita ez dagoenerako, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua da aplikatzekoa, zeinaren bidez Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten baita.

Nahiz eta legezko eragozpenik ez egon erakunde autonomoak bere hitzarmen kolektibo propio eta udalarenaz bestelakoa izateko, iruditzen zaigu antzekoak diren lanpostuen artean konparaziozko bidegabekeriak sor daitezkeela, erakunde beraren barrenean irizpide ezberdinak egotearen ondorioz.

- Nominen kudeaketa kanpoko kontabilitate-aholkulari baten bitartez egiten da.
- Ezinezkoa izan zaigu, nomina-lagin batean, ordainsariak egokiak ote diren egiaztatzea, lan-sari-taula eguneraturik ez baitugu eskueran izan. Gainera, langileen kotizazioa kalkulatu da legez aplikatzekoak direnak baino kotizazio-oinarri altuagoen arabera, Musika Eskolari buruz adierazitakoaren antzeratsu.

Gure gomendioak:

- *Kasuko lan-eskaintza publikoak onestea eta lanpostu hutsetarako deialdiak egitea Estatuko aurrekontuei buruzko lege orokorretan ezartzen diren berrezarpen-tasen eta enplegu-egonkortze-tasen ahalbideen arabera.*
- *Kotizazio-oinarriak zuzentzea eta Gizarte Segurantzarekiko egoera erregularizatzea.*
- *Egokitasun-azterlan bat egitea lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektibo bat bakarria egoteari buruz, udalari nahiz erakunde autonomoei aplikatzekoa.*

Kontratazioa

2017ko ekitaldian ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak 1,1 milioi eurokoak izan ziren.

Honako lagin hau berrikusi dugu:

- Aurreko ekitaldietan esleituriko kontratuen ondoriozko gastuak:

Kontratua	2017
Garbiketa, mantentzea eta atezaindegia	220.071
Sorosleak	118.277
Gimnasioaren kudeaketa (monitoreak)	55.559
Ikastaroen kudeaketa	44.391
Galdaren mantentze-lanak	21.328
Aseguruak	6.965
Garbiketa- eta mantentze-lanak	5.415

- 2017an esleitutako kontratuak

Kontzeptua	Prozedura	Zenbakia Lizitatzai- leak	Lizitazio- kanona	Esleipen- kanona
Fisioterapia-zerbitzuaren kudeaketa	Irekia, Europar Bata- sunean publizitaterik egin gabea	2	1.000	3.000

Gure berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, lagin fiskalizatuan:

- Gastuak justifikatuta daudela kasuko kontratuetan ezarritako baldintzei jarraikiz.
- Gastuak onetsita daudela, justifikatuta, egokiro kontabilizatuta eta, oro har, kontratazio pu-
blikoari buruzko araudiak ezarritako 30 eguneko epea baino denbora gutxiagoan ordainduta.
- Berrikusitako kontratuaren lizitazioa eta esleipena, bai eta haren exekuzioa ere, kontratu-
legediari jarraituz izapidetu direla.

Transferentzia arruntengatiko gastuak

2017an transferentzia arruntengatik sorturiko gastuak 0,10 milioi eurokoak izan ziren.

Dirulaguntza arrunten honako lagin hau berrikusi da:

Izena	2017ko betebeharrak
Saskibalo-programarako dirulaguntza	24.500
Futbol-programarako dirulaguntza	60.000

Egiaztatu dugu ezen dirulaguntza berrikusien kudeaketa eta likidazioa aplikatzekoa den arau-
diari jarraikiz egiten direla oro har, nahiz eta kudeaketa-gastuak justifikatzeko irizpidea zehaztu
beharko litzatekeen.

Kirol-kudeaketa

Udalerriko kirol-kudeaketa konpartitua dago, zeren eta bai erakundeak berak bai udaleko ki-
rol- eta gazteria-alorrak egiten baitute hori. Halatan:

- Udalak zenbait jarduera ludiko eskaintzen ditu, udal-instalazioetan eta Lagunak erakunde
autonomoarenetan emanak.
- Erakunde autonomoak instalazioetan bertan eskaintzen ditu jarduera ludikoak, eta norge-
hiagoka-jarduerak ere bai; azken horietarako, "Lagunak" markapean klub bat sortu da norgehia-
goka-diziplina bakoitzerako¹.

¹ Pilota, 2018/2019 sasoirako arte; futbola, eskubaloia, igeriketa, irristaketa, hockeya, saskibaloia eta gimnastika
erritmikoa.

Erakunde autonomoak Lagunak-en kirol-instalazioen kudeatzaile gisa dihardu, jarduera guztia instalazio horiek eta, ondorioz, bertako bazkideak ardatz hartuta antolatuz. Haren estatutuek helburu askoz ere zabalago bat jasotzen dute, udalerriko kirol-jarduerari loturikoa. Kirol-kudeaketa udalaren eta erakunde autonomoaren artean konpartitzen da; batzuetan, kirol-jarduera berbera bi entitateek eskaintzen dute, eta kiroldegia eta atletismo-pistak bezalako kirol-instalazioak zuzenean udaletik kudeatzen dira.

Erakunde autonomoak eskaintako dokumentazioan jasota ageri da ezen 2008az geroztik entitate horretako eta udaleko zenbait teknikarik adierazi dutela beharrezkoa dela kirol-programak berrantolatu eta bateratzea.

Gure gomendioak:

- *Gogoeta egitea ea udalean kirol-kudeaketa bateratu beharko ote litzatekeen Lagunak Udal Zerbitzua erakunde autonomoan, estatutuek ezarritakoari jarraikiz.*
- *Aztertzea ea kirol-eskaintzan dagoen bikoiztasuna egokia ote den eskaintza horren kudeaketa efiziente baterako.*

VI.7. BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA

2003ko urtarrilaren 17an, Barañaingo Udalak Barañain Auditorioa Fundazioa eratu eta bere babespean jarri zuen. Fundazio horren xedea da udalaren titulartasunekoa den Barañaingo Arte Eszenikoen Zentroa (Barañain Auditorioa) kudeatu eta administratzea.

Fundazioak, 2017an, 673.838 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 687.722 euroko gastuak egin zituen; beraz, 13.884 euroko defizita izan zuen.

Urteroko kontuei buruzko txostenen arabera, haren ondare garbiak honako bilakaera hau izan du:

	2013	2014	2015	2016	2017
ONDARE GARBIA					
Funts berekiak	14.200	13.059	15.655	22.544	8.660
Fundazioaren zuzkidura	736.250	736.250	736.250	742.250	742.250
Aurreko ekitaldietako soberakinak	-698.793	-722.051	-723.191	-720.595	-719.706
Ekitaldiko soberakina	-23.257	-1.140	2.595	890	-13.885

Prozeduren eta eragiketaren berrikuspen mugatu bat egin dugu, bai eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazio bat ere, hurrengo apartatuetan ageri diren arloetan eta horietako bakoitzean zehazten den norainokoarekin.

VI.7.1. Diru-sarrerak

Jarduera propioen ondoriozko diru-sarrerak

Fundazioak hiru motatako jarduerak egiten ditu:

- Gune-alkairua: auditorioa askotariko ekitaldietarako alokatzen da; eta erabilera anitzeko aretoak, ikastaroak egiteko. Hirugarrenak bere arrisku eta menturapean hartzen du bere gain kasuko jarduera, txarteldegiko diru-bilketarekin. Gune-alkairua BEZari loturiko jarduera bat da; ez dago salbuetsita.

Patronatuko batzordeak onetsitako prezioek –estatutuen arabera, eskumen hori ezin da ezein kasutan eskuordetu– gune-alkairua egunka egitea aurreikusten dute, zenbait zerbitzu teknikorekin batera, langileria eta material teknikoa barne hartzen dituztenak. Prezioak ez dira 2013z geroztik eguneratu. Ez da ageri tarifa onetsiei oinarri ematen dien kostu-azterlanik.

Patronatuko batzordeak 2017ko otsailaren 24an eginiko bilkuran, fundazioaren 2017ko aurrekontuekin batera, ekitaldi-programazioa aurkeztu zen, gastu eta diru-sarreraren aurreikuspenarekin, barne harturik, besteak beste, ekitaldi jakin batzuetarako gune-alkairuaren prezioak.

- Emankizun-programazio propioa: horretan, fundazioak profesional edo konpainia bat kontratatzen du eta hitzarturikoa ordaintzen dio. Fundazioak txarteldegiko diru-bilketarekin hartzen du bere gain ekitaldiaren arrisku eta mentura. Kasu honetan, diru-sarrera propioak dira. BEZari loturiko eta salbuetsiriko jarduera bat da.

- Ekitaldi batzuetarako, fundazioak profesional edo konpainia bat kontratatzen du, eta ordainsaria txarteldegiko diru-bilketaren portzentaje baten bidez zehazten da; halatan, arriskua partekatu egiten da. BEZari loturiko eta salbuetsiriko jardueratzat jotzen da.

BEZetik salbuetsiriko eta salbuetsi gabeko jarduerak egitean, fundazioak hainbanaketa-erregela aplikatzen du zehazte aldera jasandako BEZaren zer portzentaje den kengarri zergaren likidazioetan. 2017ko ekitaldirako hainbanaketa ehuneko 60koa izan zen.

Fundazioak ikuskapen fiskal bat eskatu zion ofizios Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoari, azken lau ekitaldietako BEZaren likidazioei zegokienez. Gure txostenaren emate-egunean amaitu gabe dirau ikuskapenak, eta ez dakigu zer inpaktu finantzario izan dezakeen fundazioaren kontabilitateko egoera-orrietan.

Gune-alokairuko lau kontratuko eta Aula Escena-ren alokairuko hiru kontratuko lagin bat ikuskatu da. Eginikoa izan da berrikustea kontratua bera, jaulkitako faktura (aplikaturiko tarifak, fakturaturiko zerbitzu teknikoak, lagatako material teknikoak) eta txarteldegiko diru-bilketaren bitarteko diru-sarrerak.

Berrikuspenean honakoak aurkitu ditugu:

- Alokairu-kontratuak

a) Kontratu guztiak alokairu-kontratuak badira ere, haietako bakoitzean aplikatzekoak diren baldintza ekonomikoak ezberdinak dira.

b) Berrikusitako kontratuak dagozkie patronatuaren batzordearen 2017ko otsailaren 24ko bilera aurkezturiko programazioan jasotako ekitaldiei.

- Aula Escena alokatzeko kontratuak

Aula Escena proiektua fundazioaren ildo estrategikoetan jaso dago, eta ardatz du Barañingo Auditorioa Nafarroan dantzaren erreferentzia-gunetzat finkatzea, xede horrekin instalazioetan lau dantza-eskolari egoitza emanaz.

Dantza-eskolen eta fundazioaren arteko harremana irakaskuntzarako aretoak alokatzean datza. Lau eskoletako hiturekin alokairu-kontratu bat sinatu zen.

Eskola horiekiko jardunbidea aldatu egin zen 2017an zehar, eta honakoa izan zen:

a) 2017ko urrira bitarte, fundazioak akademiei fakturatzen die akademiek ikasleengandik hileroko jasotzen duten diruaren zenbatekoa, nahiz eta horiek fundazioarentzako diru-sarrerak ez izan.

Bestalde, akademiek fundazioari gastu-fakturak aurkezten dizkiote, ikasle horiengandiko diru-sarreraren ehuneko 67ko zenbatekoa dutenak, prestakuntza-kontzeptuan.

Gure aburuz, ez da bidezkoa akademiek fundazioari prestakuntza-zerbitzurik fakturatzea, ezen alderdien arteko harremanak xede du fundazioarengandik guneak alokatzea.

b) 2017ko urriaz geroztik, fundazioak akademiei alokairu-faktura bat jaulkitzen die, akademiak matrikulazioagatik lortzen duen hileroko diru-sarreraren ehuneko 33koa, eta lehenago adierazitako konpentsazioak egin gabe.

- Bestalde, detektatu dugu fundazioak 9.075 euro ordaindu dizkiola akademia bati emankizun baten ordainsariaren faktura batengatik; faktura hori Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuaren dirulaguntza baterako frogagiri gisa aurkeztu da. Ekitaldi horrengatik berarengatik, fundazioak 6.050 euroko alokairu-faktura luzatu dio akademiari. Kontratazio-jardunbide hori inkoherentea eta azterturikoez bestelakoa da, haietan edo ordainsaria edo alokairua baitago.

Fakturazio-prozedura

Egindako berrikuspenean honako hauek aurkitu ditugu:

a) Dohaintzengatiko bi faktura jaulki dira, haiei BEZa jasanaraziz, nahiz eta ez diren zerga horren aplikaziopeko eragiketak.

b) Fundazioak zerbitzu-ematetzat jotzen ez diren jarduerengatiko fakturak jaulki ditu, halatan justifikatze aldera hainbat jarduerarengatik jasotako finantzaketa, zeina izatez dirulaguntza edo fundazioarentzako laguntza baita.

c) Akatsak aurkitu dira faktura-kodifikazioan, bai eta ondoz ondokoak ez diren fakturazentzikak ere.

d) Lau faktura aurkitu dira, 2017rako aurkezturiko programazioan jaso gabe dauden ekitaldiengatikoak; haietako bitan deskontuak aplikatu dira, Patronatuaren batzordeak onetsiriko prezi-oeak aurreikusten ez dituztenak.

Txarteldegiko sarrera-salmentagatiko eskudiru-bilketa berrikusi dugu. Bildutako eskudiruak banku-kontuetan sartua den bitartean egiten duen zirkuitua honako hau da:

- Txarteldegiko kutxa: sarrera-salmentagatik lortzen den eskudirua biltzen du. Eskudiru hori gero Kutxara eramaten da.
- Kutxa: txarteldegiko kutxatik helarazten zaion eguneroko eskudirua jasotzen du. Kutxa hori halaber erabiltzen da fundazioaren eskudiruzko ordainketetarako. Haren saldoa fundazioak darabiltzan banku-kontuetara lekualdatzen da.
- Bankuak: kutxatik helarazitako eskudirua eta fundazioaren diru-sarreraren eta gastuen gainarako helbideratzeetatik heldutakoa jasotzen dute.

Eginiko lanean honakoa aurkitu dugu:

- Txarteldegiko diru-sarrera kontabilizatuak handiagoak izan dira sarrera-salmentaren kudeaketarako aplikazio informatikoan erregistraturikoak baino; gure kalkuluen arabera, 6.200 eurokoak.
- Kontabilizatu gabe utzi dira banku-kontu bateko 800 euroko diru-sarrerak eta 1.750,34 euroko gastuak.

Dirulaguntzengatiko diru-sarrerak

Ustiapen-dirulaguntza gisa kontabilizaturiko honako diru-sarrera hauek berrikusi dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Barañaingo Udalaren ekarpena	165.000
Barañaingo Udalaren hitzarmena, 165.000	
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	43.300
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua	
11.225	
Hezkuntza Departamentua	7.030

Hauexek dira eginiko berrikuspenaren emaitzak:

• Txostenaren VI.5.6 apartatuan agertzen denez, udaletiko finantzaketa egin da fundazioaren diru-zaintzako beharizanen araberrako ordainketa aurreratuen bitartez; horiek guztiak, hitzarmena 2017ko irailaren amaiera-aldera sinatu aurretik.

• Nafarroako Gobernuaren erakunde eta departamentuetatik emandako ustiapen-dirulaguntzak izan dira prestakuntza-jarduerengatiko zerbitzu-emateetarako, eta fundazioak jaulkitako fakturak dituzte frogagiri.

- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari jaulkitako fakturretan ez da jasanarazi instalazio-alkairua deritzon kontzeptuari dagokion BEZa, zeinak 535 euro egiten baitu, gure kalkuluen arabera.

- Nabarmendu beharrekoak ditugu Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren fakturretan izandako berandutzak (lau hilabetekoa eta zortzi hilabetekoa, hurrenez hurren). Horien zergatiaren berririk ez da agertzen, fundazioak diru-zaintza aldetik kinka zailak bizi dituen arren.

VI.7.2. Langileria-gastuak

Fundazioak langile hauek dauzka 2017an:

- Administrazioko arduraduna.
- Zuzendaritza teknikoko arduraduna.
- Komunikazioko arduraduna.
- Programazioko arduraduna.
- Aretoko arduraduna.
- Plangintza eta antolaketako arduraduna.

Langile horiek egoera honetan daude:

- 2017ko ekainetik 2018ko urtarrilera bitartean hiru langilek eszedentzia eskatu dute, eta laguntza-kontratu bidez bete dira lanpostu horietatik bi.

- 2018an, administrazioko arduraduna kaleratua izan zen, eta fundazioaren aurkako demanda aurkeztu zuen lan-arloko jurisdikzioan. Iruñeko Lan-arloko 1. Epaitegiaren epaiak kaleratze hori deusez deklaratu du. Txosten honen jaulkipen-egunean, epai hori ez da irmoa.

Administrazioko arduradunaren lanpostua laguntza-kontratu baten bidez partzialki estalia dago. Kontratu horretako eginkizunak fundazioaren kontabilitatera mugatzen dira.

- Badago fundazioari administrazio-zereginetan laguntzeko lanpostu bat, laguntza-kontratu baten bidez bete zena eta gaur egun plantillari erantsi zaiona lan-kontratu batekin.

- Diru-zaintzako kinka zailen ondorioz, zenbait hilabetetan ezinezkoa izan da langileen nominak epe barruan ordaintzea.

Laguntza-kontratuak

Honako kontratu-lagin hau berrikusi dugu:

Kontratuak	Zenbatekoa (2017, BEZa barne)
Fundazioarentzako laguntza	14.634
Ekitaldietako langile teknikoek zerbitzuak	26.554
Garbiketa	39.868

Kontratu horiez gain, honakoak berrikusi dira:

Kontratuak	
Programazioko arduraduna	2017an sinaturiko kontratua
Komunikazioko eta programazio-laguntzako arduraduna	2018an sinaturiko kontratua

Emaitzak honakoak izan dira:

- Kontrataturiko zerbitzu guztietan, fakturazio-zenbatekoen ondoriozko kontratu-balio kalkulatuertarako, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeak xedatzen du esleituak izan daitezela publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, aipaturiko araudian ezarritako forma-betebeharrekin. Ez da ageri inolako prozedurarik egin denik, aipatu kontratuen esleipena frogatzen duenik.

- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 95 egunekoa da, eta halatan urratu egiten da abenduaren 29ko 3/2004 Legeak, merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituenak, ezartzen duen gehieneko epea. 2017ko ekitaldiaren itxieran, hartzekodunen saldoak 105.000 euro egiten du.

- Programazioko arduradunaren kontratuak 2017an eragindako gastua, kontratuaren arabera, 2.000 eurokoa da, BEZa barne, eta 2017ko abenduari dagokio. 2018ko urtarrileko fakturak 2017ko abenduko zerbitzuak barne hartzen ditu.

- 2018an, fundazioari administrazio-laguntza emateko eta programazioko ardurarako kontraturiko zerbitzuak pertsona bereberekiko lan-kontratu bihurtu dira, fundazio publikoei eskatzekoa zaien berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen araberrako prozedurarik izapidetu gabe.

VI.7.3. Amaierako konklusioa eta gomendioak

- Fundazioa Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen aplikaziopeko entitate bat izan arren, kontratuen lizitazioa eta esleipena ez dira kontratu-arau horren araberrakoak.

- Langile-hautaketan ez dira errespetatu oinarritzkoak diren eta fundazio publikoei eskatze-koak zaizkien printzipioak, enplegatu publikoen berdintasun, merezimendu eta gaitasunari buruzkoak.

- BEZa ez da jasanarazi haren aplikaziopekoak diren eta salbuetsi gabe dauden zenbait eragiketatan, eta jasanarazitako BEZa jasotzen duten fakturak jaulki izan dira hari loturikoak ez diren zenbait eragiketatan.

- Ez dago urteko diru-zaintzako planik, modua emanen duenik kobrantzak, ordainketak eta diru-eskuragarritasunak planifikatu eta diru-zaintzako kinka zailak ahal den neurrian ekiditeko.

- Barne-kontrollean ahulezia nabarmenak daude, batez ere diru-zaintzaren arloan, fakturazio-prozeduretan eta eginkizun-bereizketan, bai eta ekitaldietarako eta guner-alokairurako kontratu jakin batzuetan ere.

- Gaur egun, eta kudeatzailearen figurarik ez dagoenez, lehendakaria da praktikan zuzendari-tza- eta kudeaketa-eginkizunak betetzen dituenak.

- Ez dago organigramarik, ez eta lanpostu ezberdinen eginkizun eta erantzukizunen deskribapenik ere.

- Eginkizun-bereizketa gaizki egina dago

- Patronatuko batzordeak onetsitako prezioak ez daude eguneratuta, eta aplikatzen ari diren deskontuak ez dituzte aurreikusten.

Gure gomendioak:

- *Azter bedi ea fundazioaren ardurapean utzitako jardueren kudeaketa denik eta egokiena ote den, kontuan harturik haren egoera ekonomikoa eta agerian geratu diren kudeaketako eta barne-kontrolko ahuleziak.*

- *Aintzat har bedi fundazioaren jarduerak udalaren beraren administrazio-unitate batean be-rriro hartzearen posibilitatea; are gehiago, haren egituran kultur arlo bat badagoelarik.*

- *Egungo kudeaketa-ereduarekin segituz gero, fundazioak, entitate publikoa den aldetik, kontratazio publikoari buruzko araudia bete beharra dauka, bai eta berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak ere, langile-hautaketan.*
- *Jasanaraz bedi BEZa hari loturikoak eta salbuetsigabeak diren eragiketetan; eta, lotuga-beak diren eragiketetan, ez bedi egin jasanarazitako BEZdun fakturarik.*
- *Berrikus eta onbidera bitez kontabilizatu gabeko banku-mugimenduak.*
- *Diru-zaintzaren alorrean eta auditorioko guneen kudeaketan kontrol-prozedurak taxutu bitez.*
- *Organigrama bat egin bedi, argiro zedarrituko dituen langileek erabaki-hartzean dituzten eginkizunak eta erantzukizunak.*
- *Eginkizunak behar bezala bereiz bitez.*
- *Patronatuko batzordeak kostu-azterlan eguneratu eta egoki baten arabera prezioak eta, kasua bada, deskontuak, onetsi behar ditu, eta horiek aplikatu fundazioaren jardura guztiei, hala alokairukoei nola ekitaldi-programaziokoei.*
- *Berrikus bitez fundazioaren urteroko finantza-auditoretzak, eta osa bitez lege-betetzeari buruzko auditoretzak eginez.*

Miguel Ángel Aurrecochea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2019ko apirilaren 11n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO OHARRAK

Udal honetan joan den martxoaren 29an jaso zen Kontuen Ganberak Barañaingo Udalaren eta Barañaingo Auditorioa Fundazioaren 2017ko kudeaketari buruz egindako behin-behineko fiskalizazio-txostena. Txostena aztertzeke eta, kasua izanez gero, 2019ko apirilaren 2ra bitartean alegazioak aurkezteko aukera eman zitzaigun, eta ohartarazi ezen ez zirela aintzat hartuko, ez eta txostenari erantsiko ere, hartan adierazitako konklusioak eta iritziak argiro eta zuzenki hizpide hartzen ez zituzten alegazioak.

Administrazio honek erabat ezinezkotzat jo zuenez aipatu behin-behineko txostena egun bali-odun bakarrean aztertzea, hamar egun baliioduneko luzapena eskatu zen, Barañaingo Udalari buruzko 2017ko ekitaldiko behin-behineko fiskalizazio-txostenaren azterketa eta analisi beharrezkoak egin ahal izateko eta konklusioak Kontuen Ganberari igorri ahal izateko.

Apirilaren 2an eginiko bigarren komunikazio batean, Kontuen Ganberak jakinarazi zuen ezen epea apirilaren 4ko 14:00ak arte, osteguna, luzatzen zela. Ganberak eginiko ahalegina eskertzen baguen ere, ezinezko gertatzen zitzaigun epe horiek nahikotzat onartzea.

Ez dut aukera hau pasatzen utzi nahi, alabaina, txostenari eman zaion ikuspegiari buruz gure iritzia helarazteko. Txostenak dioenez, "gure iritziz, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Udalaren 2017ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduerak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi muntadun guztietan, aplikatzekoak diren arauekin". Testuan zehar, kudeaketaren zenbait alderdiri buruzko xehetasunak ematen eta gomendioak aurkezten ditu. Udalari baizik ez dagokion parteak, nahiz eta emandako datuek zuzenak diruditen, ez ditu azaltzen kudeaketa-egoera horren arrazoiak, ez eta adierazten ere ea harrezkero inolako soluziorik eman ote zaion. Ohar horiek Miguel Ángel Aurrecoechea auditoreari helarazi zitzaizkion, eta espedienteari erantsiak izan daitezen nahi genuke.

Gaur den egunean, eta hertsiki lanekoak diren arrazoiengatik, konplikatu izan zaigu bilera bat egitea egoera eta txostena guri gustatuko litzazigukeen moduan aztertzeke. Horrek ez du eragozten etorkizunean azterlan xehakatu bat egin dezagun Kontuen Ganberak eginiko gomendioei buruz eta, halatan, egoki diren erabakiak hartu eta egon litezkeen disrupzio edo akatsak konpondu ahal izan ditzagun.

Zinez espero dugu gure egoera ulertu ahal izan dezazuela eta halaber uler dezazuela gaur den egunean eta eskatzen diguzuen presaz ezinezkoa zaigula helarazitako behin-behineko txostenari alegazioak aurkeztea.

Barañainen, 2019ko apirilaren 10ean

Alkate-Lehendakaria, Oihane Indakoetxea Barbería

ERANTZUNA BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO OHARREI

Behin-behineko txostenari alegazioak aurkez ziezazkion Udalari emandako epea 2019ko martxoaren 29tik apirilaren 11ra bitartekoa izan zen.

Txostenaren ikuspegiari dagokionez, hala haren egitura nola haren edukia sektore publikoaren fiskalizazioari buruzko printzipio eta gidetan ezarritakoaren arabera dira. Horrela, kontu orokorrari buruzko iritzi finantzarioari eta legediaren betetzeari buruzko epigrafean aintzat hartzen dira Barañaingo Udalaren eta haren menpeko enteen egoera-orri finantzarioei nahiz jarduera finantzarioaren legezkotasunari eragiten dieten egitate muntadunak. Gainera, txostenak barne hartzen ditu arlo ezberdinetako lagin aipatuen berrikuspenetik ateratako konklusioak eta haien kudeaketa hobetzeko egoki diren gomendioak. Halaber aztertzen da Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera finantzarioa eta lehenagoko ekitaldiei buruzko gomendioen betetzea.

Iruñean, 2019ko apirilaren 11n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko 4. oinarriko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera –deialdia Kontuen Ganberako lehendakariaren 2019ko apirilaren 17ko ebazpenaz onetsi zen–, behin eskabideak aurkezteko epea bukatuak, bidezkoa da deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onetsi eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Beraz, lehendakaritza honek, bere ahalmen eta eskumenak baliatuta,

EBATZI DU:

Lehena.- Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onestea. Hona zerrenda hori:

a) *Onartuak:*

Ariztegui Recalde, M^a Belén
Basterra Olóriz, Garbiñe
Berrospe García, Itziar
Catalán Goñi, M^a Dolores
Ibero Gutiérrez, Francisco Javier
Martínez de Estibariz Ochagavía, Javier
Mutilva Contreras, M^a Teresa

Olóriz Larrea, Jesús Angel
Oscos Asiain, Aitziber
Saiz Agustín, M^a Dolores
Segura Olayar, M^a José
Villafranca Alvarez, Yolanda

b) *Baztertuak:*

Agirre Pérez, Iñaki (1)
Labeaga Pérez, Francisco (2)

Baztertzeko arrazoiak:

- (1) Deialdiko 2.1 a) eta 2.1 c) oinarrietan ezarritako baldintzak ez egiaztatzeagatik.
- (2) Deialdiko 2.1 b) oinarrian ezarritako baldintza ez egiaztatzeagatik.

Bigarrena.- Xedatzea, deialdiko 4. oinarriko 2. apartatuan ezarritakoarekin bat, interesdunek erreklamazioak aurkezten ahalko dituztela behin-behineko zerrendaren aurka eta, akatsik izan bada, haiek zuzendu, zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren iragarkien oholean zein web orrian argitara dadin xedatzea.

Iruñean, 2019ko ekainaren 4an

Jarduneko Lehendakaria: José Luis Ezquerro Royo